OF-031/2020

## FORU AGINDUA / ORDEN FORAL

Lurralde Plangintzako Zerbitzuak 2020ko otsailaren 13an egindako txostenean ezarri bezala, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren Legegintzaldiko Planarekin bat etorriz eta Erreferentziako Markoen inguruko lanekin jarraituz, 2020an azpiegitura fisikoa mantentzeko hainbat lan egin behar dira, hala nola iltze hondatuak ordeztea, iltze horiek berriz behatzea, GNSS estazioen sarea mantentzen laguntzea, datuak mantentzea, etab. Halaber, Gipuzkoako Azpiegitura Geodesikoa Ezagutzeko Azpiegitura kalkulatu eta mantentzeko ekintzak. Ezinbestekoa da lan horiek abian jartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan azpiegitura geodesikoa ezartzeko eta mantentzeko lanekin jarraitzeko. Azken helburua da Gipuzkoako Azpiegitura Geodesikoa garatzeko eta mantentzeko eginkizunak betetzea eta erakunde publiko eta pribatu guztien eta, oro har, herritarren eskura jartzea, uztailaren 19ko 18/2016 Foru Dekretuak agintzen duenez.

Tal como establece el Informe emitido por el Servicio de Planificación Territorial el 13 de febrero de 2020, de acuerdo con el Plan de Legislatura del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio y continuando con los trabajos sobre Marcos de Referencia, es necesario realizar durante 2020 distintas tareas de mantenimiento de la Infraestructura Física, como la sustitución de clavos deteriorados, reobservación de esos clavos, apoyo en el mantenimiento de la red de Estaciones GNSS, mantenimiento de datos, etc. Así como acciones de cálculo y mantenimiento de la Infraestructura de Conocimiento de la Infraestructura Geodésica de Gipuzkoa. Es ineludible la puesta en marcha de estas tareas para continuar con los trabajos de implantación y mantenimiento de una Infraestructura Geodésica en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. El objeto final es dar cumplimiento a las funciones de desarrollo y mantenimiento de la Infraestructura Geodésica de Gipuzkoa y su puesta a disposición para el conjunto de las instituciones públicas y privadas y de la ciudadanía en general que señala el Decreto Foral 18/2016, de 19 de julio.

Gaur egun, Gipuzkoako azpiegitura geodesikoak 4 GNSS estazio etengabe ditu, Gipuzkoako inguruneko beste estazio batzuekin batera, Gipuzkoako GNSS Sarean eta foru-, autonomia-, estatu- eta nazioarteko beste sare batzuetan integratuta. 2019an, Gipuzkoako GNSS sareak 25.212 GNSS zuzenketa-eskaerari erantzun die landa-lanetan. GFAk 1.075 iltze geodesikoko sare bat ere badu, doitasun handiko datu geometriko eta grabimetrikoekin, lan geodesiko eta topografikoetan erreferentzia gisa erabiliak; 89 fitxa, udal sare geometrikoen kalkulu zehatzaren ereduari buruzkoak, ED50 esparrutik indarrean dagoen ETRS89 esparrura, eta, oraingoz, 40 fitxa, sare horiek RedNAP08 indarreko esparru altimetrikora eta Europako EVRS esparrura behar bezala eraldatzeari buruzkoak. Iltzeen erreseinak eta doikuntzak kalkulatzeko fitxak, geodesiako beste dokumentu batzuekin batera, 4.676 aldiz deskargatu dira 2019an.

Actualmente la Infraestructura Geodésica de Gipuzkoa comprende 4 estaciones continuas GNSS integradas, junto otras estaciones del entorno de Gipuzkoa, en la Red GNSS de Gipuzkoa y en otras redes forales, autonómicas, estatales e internacionales. Durante 2019 la Red GNSS de Gipuzkoa ha atendido en línea 25.212 peticiones de correcciones GNSS en trabajos de campo. La DFG también cuenta con una red de 1.075 clavos geodésicos con datos geométricos y gravimétricos de alta precisión empleados como referencia en trabajos geodésicos y topográficos, 89 fichas sobre el modelo de cálculo preciso de redes geométricas municipales desde el marco ED50 al vigente ETRS89 y por el momento 40 fichas sobre la transformación precisa de esas redes al marco altimétrico vigente RedNAP08 y al marco europeo EVRS. Distintas reseñas de clavos y fichas de cálculo de ajuste, junto con otros documentos de geodesia, han sido descargadas en 4.676 ocasiones durante 2019.

Azpiegitura hori mantentzea eta hobetzea ezin du bere gain hartu Lurralde Plangintzako Zerbitzuak dituen giza baliabideekin eta baliabide teknikoekin. Zeregin hori baliabide proploekin bete ezin denez, "*Gipuzkoako azpiegitura geodesikoa 2020an mantentzeko*" zerbitzua kontratatu behar da, Lurralde Plangintzaren Zerbitzuak 2020ko otsailaren 13an egindako proposamenean azaltzen den bezala.

El mantenimiento y mejora de esa infraestructura no puede ser asumida con los recursos humanos y técnicos de que dispone el Servicio de Planificación Territorial. La imposibilidad de satisfacer con medios propios esa tarea conlleva la necesidad de contratar el servicio de "*Mantenimiento de la Infraestructura Geodésica de Gipuzkoa durante 2020*", tal como expone la propuesta emitida por el Servicio de Planificación Territorial con fecha de 13 de febrero de 2020.

Horretarako, Administrazio Klausula Berezien eta Preskripzio Teknikoen Agiriak idatzi dira, kontratazio hori arautzen dutenak, eta hura gauzatzeko 151.608,56 euroko (125,296,16 € gehi 26.312,19 € BEZ kontzeptuan) oinarrizko lizitazio-aurrekontua eta kontratuaren urtebeteko iraupena ezartzen dituztenak. Balio zenbatetsia 125.296,16 eurokoa da.

A tal efecto, se han redactado los correspondientes Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas que regulan dicha contratación y que establecen para su ejecución un presupuesto base de licitación de 151.608,56 euros (125,296,16 € más 26.312,19 € en concepto de IVA) y una duración del contrato de un año, siendo el valor estimado de 125.296,16 euros.

Ondorioz, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak, bere eskumenak erabilita

En consecuencia, en el ejercicio de sus competencias, esta Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio

**EBAZTEN DU**

**RESUELVE**

**LEHENENGO.-** Onartzea "*Gipuzkoako azpiegitura geodesikoa 2020an mantentzeko*" zerbitzuak kontratatzeko espedientea (Erref.: 2020034CO220), 151.608,56 euroko oinarrizko lizitazio-aurrekontuarekin (125,296,16 € gehi 26.312,19 € BEZaren kontzeptuan) eta urtebeteko iraupenarekin, lizitazioa prozedura irekiaren bidez irekitzea xedatuz.

**PRIMERO.-** Aprobar el expediente de contratación de servicios para el "*Mantenimiento de la Infraestructura Geodésica de Gipuzkoa durante 2020*" (Ref.: 2020034CO220), con presupuesto base de licitación de 151.608,56 euros (125,296,16 € más 26.312,19 € en concepto de IVA) y un año de duración, disponiendo la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

**BIGARREN.-** Onartzea baldintza administratiboen eta ezaugarri teknikoen agiriak, foru agindu honen lehen paragrafoan adierazitako zerbitzuaren kontratazioa arautzen dutenak, alegia.

**SEGUNDO.-** Aprobar el correspondiente Pliego de Cláusulas Administrativas así como el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación del servicio expresado en el apartado primero de la presente Orden Foral.

**HIRUGARRENA.-** 151.608,56 €ko gastua baimentzea, 1 0620.220.670.05.01 2020 partidaren kargura, zerbitzu hori ematetik eratorritako betebeharrei aurre egiteko.

**TERCERO.-** Autorizar el gasto de 151.608,56 € con cargo a la partida 1 0620.220.670.05.01 2020, con objeto de hacer frente a las obligaciones que se deriven de la prestación de dicho servicio.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete,

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra la misma RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute foru diputatuari horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia, 2020ko maiatzaren 15a / San Sebastián, a 15 de mayo de 2020

MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO FORU DIPUTATUA, / LA DIPUTADA FORAL DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Sin.:/ Fdo.: Rafaela ROMERO POZO